



Ebazpena, 2011ko maiatzaren 2koa, Hezkuntzako sailburuordearena. Honen bidez 2011/12 ikasturtean Hezkuntzako prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak egiteko deia egiten da.

Hitzaurrea

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hainbat deialdi egin ditu hezkuntza-sistema eguneratu eta gizarte-beharrizanei egokitzeko, eta deialdiotan beti ahalegindu da unean uneko alderdirik egokienetan eragiten.

Curriculumean gaitasunak sartu dira, eta ondorioz azpimarratu egiten da zein garrantzia duen ikasleak prestatzea bere ikasketak integrazteko gai izan daitezen, eduki mota desberdinak harremanetan jarriaz eta eraginkortasunez erabiliz hainbat egoera eta testuingurutan behar dituztenean.

Ikuspegi-aldaketa horrek irakasle aktiboak behar ditu, eta irakasleek, berriz, etengabeko prestakuntza izan behar dute ikastetxean bertan eta lankidetzaz-geroan. Horrela, curriculum-arloez dituzten ezagutzak eta ulermena sakonduko dute; era beran, ikasi eta irakasteko estrategien erreperorioa zabaldu eta horiek martxan jartzeko duten gaitasuna areagotuko dute: beran, ikastetxean prestatzeko eta berritzeko prozesuak uztartuko dituzte.

Hori dela eta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak badaki ikastetxeetan esku hartzen duenean, ikastetxeetako lan-testuingurua kontuan hartu behar duela, eta hezkuntza-sistema eguneratzea bermatzeko, irakasleen etengabeko prestakuntza eta ikastetxeko ohiko dinamikan eragin positiboa duten berrikuntza-ekintzak uztartu nahi ditu. Prestatzeko eta berritzeko prozesu hori, berriz, lotu egin behar zaie hobetzeko planei eta indarrean den curriculumaren garapenari.

1. Deialdiaren xedea

Batetik, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza (edozein mota eta mailatakoa, heziketa zikloak izan ezik) ematen duten ikastetxe publikoei dei egitea, hobekuntza-planei, curriculumari eta oinarritzko gaitasunei lotutako hezkuntzako prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak aurkez ditzaten, eta, bestetik, 2011-2012 ikasturtean zehar proiektu horiek aurrera ateratzeko diru-laguntzak emateko baldintzak edo betekizunak ezartzen dira.

Era berean, 2009/2010 eta 2010/2011 ikasturteetan orain arte garatu diren berrikuntza-proiektu globalen esleipena luzatu nahi da, haiek esleitzeko deialdian zetorren bezala hiru urteko zikloarekin buka dezaten.

2. Baliabide ekonomikoak eta ebazpenaren faseak

Deialdi hau finantzatzeko erabiliko diren baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan beren-beregi ezarritako aurrekontu-kredituetatik datoz. Guztira, 812.000,00 € dira.

Jasotzen diren dotazio ekonomikoak erabili ahal izango dira aholkularitzak kontratatzeko, materialak erosteko, irakasleen joan-etorrietarako eta proiektuak egin egiteko.

Deialdi hau bi fasetan ebatziko da:



a) 1. fasean, deialdiko guztizko kopuruarekin, berrikuntza-proiektu globaletako berrikuntzari erantzungo zaie, beraien dealdian zehaztutako kopuru ekonomikoen arabera eta betiere beraien dealditako betekizunak betetzen badira.

b) 2. fasean, gainerako kopuruarekin, deialdi honetan eskatzen direnak betetzen dituzten hezkuntzako prestakuntza- eta berrikuntza-proiektu guztiak hartuko dira kontuan, zehaztutako kopuruetan. Aurkeztutako prestakuntza- eta berrikuntza-proiektu guztientzako diru nahikorik ez badago, dirua guztien artean hainbanatuko da, eskaeren balorazio teknikoetako baremoen arabera.

3. Onuradunak

EAEen unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakaskuntza (edozein maila eta motakoa) ematen duten ikastetxe publikoak, heziketa-zikloetako irakaskuntza besterik ematen ez dutenak izan ezik.

4. Hezkuntzako prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuaren ezaugarriak eta eskakizun espezifikoak

- a. Deialdi honetako hezkuntzako prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuek kontuan eduki beharko dute ikastetxearen hobekuntza globala, eta, beraz:
- Funtsezko erreferentzia modura izan beharko dute ebaluazio diagnostikotik datorren hobekuntza-plana.
 - Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan ipintzea bereziki arreta, eta oinarrizko gaitasunen garapenean.
 - Kontuan hartzea ikastetxearen planteamendu globala eta martxan dauden ekimen guztiak; besteak beste, Eskola 2.0, hizkuntzen eta eleaniztasunaren tratamendu integratua, aniztasunaren tratamendua, eskolako bizikidetzaren, hezkuntza zientifikoa.
- b. Ikastetxe guztiek prestakuntza- eta berrikuntza-proiektu bakarra aurkeztu beharko dute, eta bertan jaso beharko du zein prestakuntza- eta/edo berrikuntza-jarduera burutuko duen proiektua garatzeko.
- c. 2009/2010 eta 2010/2011 ikasturteetan hezkuntza-berrikuntzako proiektu globalak garatu dituzten ikastetxeek eska dezakete horiek luzatzea 2011/2012 ikasturtean, eta, horrela, hasi zirenetik hiru ikasturteko gehienezko epea bete.
- d. Hezkuntzako prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuek klaustroaren %60 inplikatu beharko dute. Horretarako, proiektuko jarduera edo ataza guztietan parte hartzen duten lagunak hartuko dira kontuan.
- e. Deialdi honen xede den hezkuntzako prestakuntza- eta berrikuntza-proiektua urte anitzekoa izan ahal izango da, eta urteko aldietan garatu. Kasu horretan, urtero eskatu beharko da luzatzeko.
- f. Proiektu edo aldi –urte anitzekoa bada- guztiek, 30 ordu izango dute, gutxienez, garatu eta burutzeko.



- g. Proiektuan parte hartzen duten irakasle guztiek proiektua garatu eta burutzeko jarritako orduen %80 gainditzen badute, 30 orduko ziurtagiri bana egingo zaie ofizioz eta nori berea. Hala ere, ikastetxe batek proiektuen deialdi batean baino gehiagotan parte har baitezake, irakasle berari ez zaio egingo inola ere 90 ordu baino gehiagoko ziurtagirik hezkuntzako prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuen izenean, izan mota honetakoak edo izan ingurumenari buruzkoak, izan osasunaren promozioari buruzkoak, izan hezkuntza-esparru hiru ledunari buruzkoak edo izan beste gairen bati buruzkoak.

5. Baztertu egingo dira

Prestakuntza-/Berrikuntza-proiektu hauek kanpoan geratuko dira:

- a) 30 ordu baino gutxiagoko prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak.
- b) Ikastetxearen eguneroko jarduerak bakarrik garatzen dituzten prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak (adibidez, zikloak, departamentuak, nota-txostenak eta beste ohiko dokumentu batzuk koordinatzea).
- c) Ezarritako baremoaren arabera 15 puntu baino gutxiago lortzen dutenak.
- d) Beren beregi heziketa-zikloetarako prestatzen direnak.
- e) Kanpoan geratuko dira aurreko hiru ikasturteetan garatu direnak eta onartutako indarraldia beteta dutenak.
- f) Hobekuntza-planekin, indarrean dagoen curriculumarekin eta/edo oinarritzko gaitasunekin zerikusirik ez dutenak.
- g) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zuzenean araututako beste deialdi berezi eta/edo plan edo jarduera batzuek arautzen dituztenak.

6. Hezkuntzako prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak garatzeko laguntzak.

- a. 2011/2012 ikasturterako onartutako laguntza hezkuntzako prestakuntza- /berrikuntza-proiektuak garatzearekin zerikusi zuzena duten gastuen %100era irits daitezke dotazio ekonomikoak.
- b. 2009/2010 eta 2010/2011 ikasturteetan hautatutako hezkuntza-berrikuntzako proiektu globalen dotazio ekonomikoa 20.000 eurokoa izan ahal izango da, gehienez ere, aurreko bi ikasturteetan dagoeneko jasotako laguntzak kontuan hartuta.
- c. Hautatutako prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuen laguntza ekonomikoa, gutxienez, 300 eurokoa izango da, eta 3.000 eurokoa, gehienez ere. Salbuespena, berriz, aurreko puntuan araututako proiektu globalak dira.
- d. Zuzendaritza-taldeak zaindu behar du prestakuntza- eta berrikuntza-proiektua martxan jartzen dela, eta Ikasketa-burutzak garapen guztia koordinatu beharko du, edo, bestela, irakasle bat ipini beharko du koordinatzaile modura. Horrela eginez gero, irakasle hori bera arduratuko da aldian behin informazioa emateaz Ikasketa-burutzari proiektuaren garapenari buruz eta egindako ekintzei buruz, eta zuzendaritza-taldearen bileretara joan ahal izango da proiektuarekin zerikusia duten gaiak lantzen direnean.
- e. Dena dela, ikastetxeek, antolakuntzarako duten autonomiaren barruan, koordinatzaileen irakaskuntza-ordutegiak egokitu ahal izango dituzte proiektuetan egiten duten lanera, hala eskola-orduen kopuruaren aldetik nola horien banaketaren aldetik; betiere, kasuan kasuko ikasturte-hasierako zirkularretan jasotako araudia betez eta ikastetxearen ordutegi-aukeren arabera.



- f. Hezkuntzako prestakuntza-/berrikuntza-proiekturik edo proiektu globalik onartuta duten ikastetxe guztiek erreferentziako aholkulari bat izango dute Berritzegunean. Erreferentziako aholkulari horrek, ikastetxean prestakuntza-/berrikuntza-arduradun izendatzen denarekin batera, hartuko du bere gain onartutako proiektuen jarraipen- eta ebaluazio-lanen erantzukizuna.

7. Aukeratzen diren ikastetxeen berriazko betebeharrak.

- Emandako diru-laguntza onartzea. Proiektuan parte hartzeko aukeratutako ikastetxeek berriaz eta idatziz uko egin behar diote diru-laguntzari, eta hamabost eguneko epea dute horretarako, deialdiaren ebazpena Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web orrialdean argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, diru-laguntza onartzen dutela joko da.
- Proiektua ikastetxeko urteko planean sartuko da.
- Diru-zuzkidura zertarako ematen den, horretarako erabiltzea.
- Memoriak aurkeztea ikasturtea amaitzean.

8. Jarraipena eta ebaluazioa.

- Onartutako prestakuntza-/berrikuntza-proiektuak eta berrikuntza-proiektu globalak behar bezala burutuko direla bermatzeko, Berritzegune bakoitzeko Pedagogia Batzordeak (otsailaren 6ko 15/2001 Dekretuaren III. kapituluaren 6 eta 9. artikulua) proiektuen betetze-maila aztertuko du. Horretarako, oinarritzat hartuko du ikastetxeek igortzen dituzten oroitidazkiak eta beharrezkotzat jotzen duen beste datu edo txosten oro; horrez gain, ikasturte amaieran, proiektuaren jarduera guztien emaitzei buruzko txostena ere egingo du. Txosten horiek ikastetxe bakoitzari dagokion Pedagogia Berritzatzeko Lurralde-burutzari igorriko zaizkio, eta han egoki den ikastetxearen eskura egongo dira.
- Baldin eta, ikasturtean zehar, gorabehera esanguratsurik gertatzen bada eskualdeko ikastetxeen hezkuntzako prestakuntza-/berrikuntza-proiektu edo berrikuntza-proiektu globaletako edozeinen garapenean, Berritzeguneko Zuzendaritzak txostena bidaliko dio Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari, tokian tokiko Lurralde-burutzaren bitartez; hartara, Zuzendaritza horrek agindu hau egokiro betetzeko hartu beharreko neurriak hartuko ditu.
- Ikasturtea amaitzean, lurralde-burutzek dokumentazio hau bidaliko diote Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari:
 - Ikastetxeen zerrenda; bertan, onartutako proiektuetan aurreikusita zeuden helburuak zein neurritan bete diren azalduko da, eta, ezarritako helburuak behar bezala bete ez badira, berriaz aipatu beharko da hori.
 - Proiektu bakoitzari dagokion oroitidazkiari erantsita, kasuan kasuko irakasleen partaidetzari buruzko ziurtagiria, ikastetxeko Zuzendaritzak eginga; horrez gain, bidezkoa bada, oharrak ere eraso ahal izango dira oroitidazki horretan (VIII. eranskina).
- Hezkuntzako Ikuskaritzak, ikastetxeetara egiten dituen bisitaldietan, kontrolatu egingo du zein neurritan betetzen diren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsitako hezkuntzako prestakuntza-/berrikuntza-proiektuak eta berrikuntza-proiektu globalak; proiektu horiek ikastetxeko urteko planean jaso beharko dira eta betetzen ez badira, horren berri eman beharko dio Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari. Era berean, Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoak berrikuntza-proiektu global batzuk ebaluatuko ditu; hain zuzen ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beren-beregi zehazten



dituenak. Kasu horietan, egoki diren txostenak Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari igorriko zaizkio.

9. Eskabideak formalizatu eta aurkeztea.

- a. Ikastetxeko zuzendariak ireki behar du espedienteak; horretarako, dokumentazio hau erantsi beharko du:
 - Ikastetxeko zuzendaritzak sinatu eta zigilatutako eskabidea, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariari bidali behar zaiona (I. eranskina).
 - Deialdi honetara aurkezten diren prestakuntza-/berrikuntza-proiektuaren eta berrikuntza-proiektu globalaren deskripzioa, beti ere II. eranskinean azaltzen den eran (II. eranskina).
 - Ikastetxeko hobekuntza-planaren kopia bat.
 - 2011-2012 ikasturtean garatuko diren prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuaren eta berrikuntza-proiektu globalaren jardueren laburpen-fitxak (III. eranskina).
 - Irakasleen klaustroaren agiria, honako hau berriaz adieraziko duena: ezagutzen dituela prestakuntza-/berrikuntza-proiektua eta berrikuntza-proiektu globala, eta bere gain hartzen duela proiektu horiek ikastetxearen barruko antolamenduan izan dezaketean eragina (IV. eranskina).
 - Ordezkaritza Organo Gorenaren akta. Bertan jaso behar da Ordezkaritza Organo Gorenak baduela aurkeztutako proiektuaren berri, onartu egin duela eta konpromisoa hartu duela, ikastetxea aukeratzen badute, hura gauzatzeko eta ikastetxearen urteko planean sartzeko beharrezko neurriak hartzeko (V. eranskina).
- b. Eskabideak on line beteko dira, <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/> helbide elektronikoan dagoen inprimakia erabiliz. Deialdia zabalik dagoen artean, beharrezkotzat jotzen den guztietan bete eta alda daiteke inprimaki hori. Epe hori bukatzen denean, aplikazioa automatikoki itxiko da, eta ezingo da eskabidea aldatu; aurretik, betetako dokumentu guztiak inprimatuko dira, baita sinatu eta zigilatu ere, eta bi ale aurkeztuko dira Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan, Zuzenean zerbitzuan (Gran Vía 85, 48011 Bilbao ; Andia 13, 20003 Donostia-San Sebastián; Ramiro de Maeztu 10 bajo, 01008 Vitoria-Gasteiz)edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4. artikuluan aurreikusten diren bulegoetarik edozeinetan. Ez da kontuan hartuko aurkezten ez den eskabiderik, nahiz eta on line beteta egon.
- c. Eskabideak aurkezteko epea 2011ko maiatzaren 27a arte luzatuko da (egun hori barne). Epe horretan inprimaki-eran aurkezten ez diren eskabideak ez dira ikastetxearen eskabide irmotzat joko, eta ez dira aintzat hartuko edozein eraginetarako.
- d. Baldin eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak eskabidean akats edo zehaztasun faltaren bat sumatzen badu, interesatuari hamar eguneko epea emango dio akatsa zuzendu edo derrigorrez aurkeztu beharreko dokumentuak aurkezteko, eta adierazi egingo dio, hori egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela; horretarako, ebazpen bat emango du, beti ere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikulua araberak.



10. *Eskaeren ebaluazio-batzordea.*

Ebaluazio-batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, eta hauek osatuko dute batzorde hori:

- Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria edo horrek eskuordetzen duena; lehendakari izango da.
- Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-buruak edo haiek izendatutako ordezkariak.
- Irakasleak Hobetzeko Zerbitzuetako burua.
- Ikuskari nagusiak izendatutako ikuskaria.
- Berritzegune bateko zuzendaria, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak izendatua.
- Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak izendatutako bi teknikari, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzakoak; horietako batek idazkari-lanak egingo ditu.

11. *Eskabideak aukeratzea.*

- a. Aurreko deialdietan onartutako proiektu globalak ofizioz onartuko dira, salbu Hezkuntzako Ikuskaritzako ebaluazio negatiboa jaso badute. Ikastetxe horiek eskaera-orria aurkeztu beharko dute, ikasturte honetako proiektuaren garapena zehaztuta (I eta III. eranskinak).
- b. Berritzegune bakoitzak prestakuntza-/berrikuntza-proiektuak baloratuko ditu, deialdi honetan ezarritako baremoarekin (VIII. eranskina). Jarritako puntuazioak eta egoki iritzitako gorabeherak jasotzen dituen txosten bat bidaliko dute Berritzegunetako zuzendariak Pedagogia Berritzatzeko Burutzara.
- c. Berritzeguneetako zuzendariak emandako txostenak eta puntuazioak kontuan hartuta, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritza bakoitzeko Pedagogia Berritzatzeko Burutzak txostena helaraziko dio ebaluazio-batzordeari, honako hauek jasota:
 - Hezkuntzako prestakuntza-/berrikuntza-proiektuen zerrenda; baztertu diren jarduerak eta baztertzeko zioak ere adierazi beharko dira.
 - Berrikuntza-proiektu globalen zerrenda hala denean, baztertu diren jarduerak eta berauek baztertzearen zioak ere adieraziko dira, puntuazio ordenaren arabera.
 - Berrikuntza-proiektu globalen eta prestakuntza- eta berrikuntza-proiektu guztien diru-laguntzaren proposamena, deialdi honetan ezarritakoaren arabera.
- d. Ebazpen honetan ezarritakoa eta Pedagogia Berritzatzeko lurralde-buruek egindako txostenak oinarritzat hartuta, onartu beharreko prestakuntza-/berrikuntza-proiektuak eta berrikuntza-proiektu globalak hautatuko ditu Ebaluazio-batzordeak, eta bakoitzari eman beharreko dotazio ekonomikoa zehaztuko du.
- e. Deialdiaren ebazpen-proposamena Hezkuntzako sailburuordeari igorri aurretik, aurkeztutako proiektuetan aldaketak egiteko proposa ditzake ebaluazio-batzordeak. Halakoetan, batzordeak proposatutako aldaketak jakinaraziko zaizkio eskabidea egin duen ikastetxeari, aldaketa horiekin ados dagoen ala ez adieraz dezan hamabost eguneko epearen barruan, jakinarazpen hori jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta eskabidea egin duten ikastetxeek ez badiote proposamenari beren beregi uko egiten, proposamen hori onartu egiten dutela ulertuko da, eta horrek esan nahiko du aurkeztutako proiektua proposatutako baldintzetan onartzen dutela.

12. *Dotazio ekonomikoa ordaintzea.*



Diru-laguntza bi epetan ordainduko da: lehen, emandako guztiaren ehuneko laurogei, deialdia ebaztean ordainduko da, beti ere ikastetxeak ez badio esleitutako laguntzari uko egiten; bigarrena, gainerako zatia, oroitidazkia aurkeztu eta ebaluatu ostean; dena dela, berandu jota, maiatzaren 30ean aurkeztuko da oroitidazki hori. Bertan, deialdi honetako VI. eta VII. eranskinetan ezarritako epigrafe eta baldintzak azalduko dira.

13. Gastuak justifikatzea

Ordezkaritza Organo Gorenaren akta aurkeztuko da egiaztatzeko dotazio ekonomikoa bere helburu zehatzerako erabili dela. Jatorrizko ziurtagiriak, berriz, administrazio eskudunak ekonomia kontrolatzeko dituen organoen esku geratuko dira.

14. Ebazpena eta ez-betetzea.

- a. Ebaluazio-batzordeak proposatuta, Hezkuntzako sailburuordeak ebatziko du deialdia, eta interesdunei jakinarazteko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko web orrian argitaratuko du. Argitaratzean, erreklamazioak egiteko eta/edo akatsak zuzentzeko epea irekiko da.
- b. Diru-laguntza ematea eragin zuten baldintzetako bat ez dela betetzen antzematen bada, jasotako diru-kopurua Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaio, beti ere egoera hauetakoren bat gertatzen bada:
 - Berritzeguneko pedagogia-batzordeak eta/edo zuzendaritzak prozesuaren jarraipenean eta ebaluazioan zehaztea proiektuek ez dutela diseinatzerakoan gutxienekotzat aurreikusitako betetze-maila erdietsi.
 - Deialdi honetan xedatutakoa edonola ez betetzea.



I. ERANSKINA HEZKUNTZAKO PRESTAKUNTZA- ETA BERRIKUNTZA-PROIEKTUA

IKASTETXEAREN KODEA

--	--	--	--	--	--

.....jauna/andrea
(ikastetxearen titularra/zuzendaria): NAN zk.:.....
Ikastetxearen izena:
Helbidea:..... posta kodea.....
Telefonoa:.....
Faxa:..... Helbide elektronikoa:.....

ADIERAZTEN DU:

Ezagutzen dituela prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak egiteko deialdiaren baldintzak.

Proiektu hau aurkezten duela

- Prestakuntza- eta berrikuntza-proiektua
 Hezkuntza-berrikuntzako proiektu globalaren jarraipena

Deialdi horretan zehaztutako baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten agiriak (jatorrizkoak eta kopiak) aurkezten dituela.

- Proiektuaren deskribapena (II. eranskina)
 Hobekuntza-planaren kopia.
 Proiektuaren laburpen-fitxa (III. eranskina).
 Klaustroaren akta (IV. eranskina)
 Ordezkaritza Erakunde Gorenaren akta (V. eranskina)

ESKATZEN DU:

Ikastetxeak aurkeztutako proiektuaren dirulaguntza onestea.

.....(e)n, 2011koaren(e)(a)n.

<p>(sinadura eta zigilua)</p>

HEZKUNTZA BERRITZATZEKO ZUZENDARIA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, Prestakuntza eta Berrikuntza proiektuak 19 fitxategian jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako diru-laguntzak eta deialdi honetara aurkezten diren pertsonen deialdiaren garapenari buruz informatzea izango da. Fitxategi honen ardura Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza izango da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze-eskubideak erabiltzeko Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetara: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Halaber, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonen Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari baimena ematen diote beste erakunde publiko batzuetan aurkeztutako dokumentuen benetakotasuna egiaztatzeko.



II. ERANSKINA HEZKUNTZAKO PRESTAKUNTZA- ETA BERRIKUNTZA-PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

1. Proiektuaren izenburua
2. Proiektua testuinguruan jartzea eta justifikatzea:
 - Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak hobetzeko planteamendua.
 - Epe erdira egindako planteamendu estrategikoa.
 - Zein helburu jartzen diren eremuetan hautemandako beharretarako.
3. Aurreikusitako prestakuntza- eta berrikuntza-jarduerak:
 - Izenburua
 - Helburuak.
 - Jarduerak
 - denboralizazioa.
 - Lan-metodologia
 - Irakasleen inplikazioa eta arduradunak.
 - Ebaluaziorako adierazleak.
4. Aurrekontu zehaztuta


**III. ERANSKINA
LABURPEN-FITXA**

Ikastetxearen datu orokorrak	Haur H.	LEHEN H.	DBH	Batx.	Beste batzuk
Ikastetxeko irakasleen kopurua hezkuntzako mailen arabera (LZren arabera)					
Ikasle-taldeen kopurua hezkuntzako mailen arabera					

Berrikuntza-proiektu globala	Prestakuntza- eta berrikuntza-proiektua	Eskatutako aurrekontua, guztira

Berrikuntza-proiektu globala

Proiektuaren izena:									
Aurretik onartutako ikasturteak: 2009/10					2010/11				
Proiektuaren koordinatzailea:									
Inplikaturako irakasle-kopurua hezkuntza-mailaren arabera:					Proiektuak ukitzen dituen hezkuntzako mailak/ikasle-taldeen kopurua				
Haur H.	LEHEN H.	DBH	Batx.	Beste batzuk	Haur H.	LEHEN H.	DBH	Batx.	Beste batzuk
Proiektuko prestakuntza-jardueren ordu-kopurua, guztira:			Proiektua taxutu eta koordinatzeko jardueren orduak, guztira				Proiektua ikasleekin aplikatzeko orduak, guztira		
AURREKONTUA	Aholkularitza-gastuak		Curriculumerako materiala		Material teknologikoa			Ikasgelako baliabideak	
	Irakasleen gastuak		Beste gastu batzuk						

HEZKUNTZAKO PRESTAKUNTZA- ETA BERRIKUNTZA-PROIEKTUA

Proiektuaren izenburua:									
Proiektuaren koordinatzailea:									
Inplikaturako irakasle-kopurua hezkuntza-mailaren arabera:					Proiektuak ukitzen dituen hezkuntzako mailak/ikasle-taldeen kopurua				
Haur H.	LEHEN H.	DBH	Batx.	Beste batzuk	Haur H.	LEHEN H.	DBH	Batx.	Beste batzuk
Diseinatu eta koordinatzeko orduak:		<input type="text"/>	Prestatzeko orduak:			<input type="text"/>	Gelan aplikatzeko orduak:		
AURREKONTUA	Aholkularitza-gastuak		Curriculumerako materiala		Material teknologikoa			Ikasgelako baliabideak	
	Irakasleen gastuak		Beste gastu batzuk						

**IV. ERANSKINA**
KLAUSTROAREN AKTA

.....irakasleen klaustroak aparteko bilera egin du gaur, 2011ko
.....aren(e)(a)n,etan (ordua), eta egin ere, legeak
klaustroaren jardunerako ezartzen dituen beharkizun guztiak betez egin du; eta, hezkuntzako
prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuetarako eta berrikuntza-proiektu globaletarako 2011ko
.....aren (e)ko Aginduak egindako deialdiak ezarri dituen eskakizunak
betez, ondoko hau adierazten du klaustroak: ikastetxeko irakasle guztiak ezagutzen dutela
aurkeztutako proiektua, bai eta horren barneko jarduera bakoitza ere, eta bere gain hartzen duela
proiektu horrek parte hartzen dutenentzat ekarriko dituen ondorioak, hala irakasleentzat nola
ikastetxearen barruko antolamendurako.

.....(e)n, 2011koaren ...(e)(a)n.

IKASTETXEKO ZUZENDARIA

(sinadura eta zigilua)



**V. ERANSKINA
ORDEZKARITZA ORGANO GORENAREN AKTA**

Hezkuntzako prestakuntza- eta berrikuntza-proiektua:
Izenburua:

Berrikuntza-proiektu globala:
Izenburua:

.....ikastetxeko ordezkari-tza-organo gorenak
aparteko bilera egin du gaur, 2011koaren(e)(a)n,etan (ordua); honako hauek
hartu dute parte:

gurasoen ordezkari:

irakasleen ordezkari

ikasleen ordezkari eta

.....
irakasle ez diren beste langileen ordezkari, zuzendari jauna/andrea izan da buru
Ordezkaritza-organo gorenak, hezkuntzako prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuetarako eta
berrikuntza-proiektu globaletarako deialdiaren eskakizunak betez (2011ko
.....aren(e)ko Agindua), konpromisoa hartzen du aipatu
den proiektu hori gauzatzeko behar diren neurriak hartzeko eta, proiektua onartzen bada, urteko
planean sartzeko; orobat, proiektu horren koordinatzaile izateko, ordezkatzeko duen klaustroko
irakasle diren ondoko hauek izendatzen ditu:

.....(e)n, 2011koaren ...(e)(a)n.

ORDEZKARITZA ORGANO GORENEKO BURUA

(Izena eta sinadura)

(sinadura eta zigilua)



**VI ERANSKINA
MEMORIA EGITEKO GIDOIA
(hau eman ikasturtea amaitzean, 2012ko maiatzaren 30ean)**

1. Helburuak noraino erdietsi diren
2. Proiektuaren garapenaren azterketa laburra
3. Ondorioak eta jarraipenerako proposamenak.
4. Esku hartu duten irakasleen zerrenda, hauek aipatuz: izena, bi abizenak, NAN, irakasle bakoitzaren parte-hartzearen ehunekoa (%). Hori guztia, prestakuntza-proiektuaren jarduera bakoitzerako eta hezkuntza-berrikuntzako proiektu global bakoitzerako. Zerrenda hori ikastetxeko zuzendariak ziurtatu beharko du (VII.eranskina)
5. Gastuen justifikabidea, deialdiari dagokion arautegiaren arabera.



VIII. ERANSKINA ESKAERAK BALORATZEKO BAREMOA

<p>1. Proiektuaren lotura ikastetxeko hobekuntza-planaren ezaugarrietara</p> <p>1.1. Hautemandako beharren egokitzapena 2 puntu, gehienez ere.</p> <p>1.2. Diziplina anitzeko planteamenduen garapena 2 puntu, gehienez ere</p> <p>1.3. Proposatutako jardueren ekarpenak, egin beharreko aldaketa metodologikoetarako 2 puntu, gehienez ere</p> <p>1.4. Prestakuntza- eta berrikuntza-jardueren erlazioa eremu hauekin: curriculum eta metodologia; antolamendua eta funtzionamendua; komunitatea (ikastetxearen norabidea, bizikidetz...) eta garapen profesionala edo prestakuntza. 2 puntu, gehienez ere.</p>	<p>8 puntu, gehienez ere.</p>
<p>2. Proiektua testuinguruan jartzea eta justifikatzea:</p> <p>2.1. Prestakuntza- eta berrikuntza-jardueren helburuen argitasuna eta zehaztasuna Puntu 1, gehienez ere.</p> <p>2.2. Oinarritzko gaitasunak garatzeko zeharkako planteamenduekin duen erlazioa 2 puntu, gehienez ere</p> <p>2.3. Curriculumean sartutako elementu globalizatzailak eta irakasleen, ikasleen eta eskola-komunitateko gainerako kideen inplikazioa zenbateraino hartzen duen kontuan Puntu 1, gehienez ere.</p> <p>2.4. Prestakuntza- eta berrikuntza-jarduerak zehaztea eta zuzenean aplikatzea ikastetxearen funtzionamenduan Puntu 1, gehienez ere.</p> <p>2.5. Epe erdirako estrategia bide bat zehaztea Puntu 1, gehienez ere.</p>	<p>6 puntu, gehienez ere.</p>
<p>3. Bideragarritasuna, aplikagarritasuna eta proiektuaren kudeaketa:</p> <p>3.1. Proiektuan proposatutako jardueren garapenerako aurreikusitako antolamendua Puntu 1, gehienez ere.</p> <p>3.2. Denboralizazioaren definizioa eta proiektuaren faseak: Inplikaturako irakasleen lankidetzak eta ikastetxearen eguneroko dinamikarekin duen harremana Puntu 1, gehienez ere.</p> <p>3.3. Koordinazio-egiturak nola ezartzen diren eta arduren banaketa Puntu 1, gehienez ere.</p> <p>3.4. Proposatutako jardueren prestakuntza- eta berrikuntza-alderdiak argiki bereiztea Puntu 1, gehienez ere.</p> <p>3.5. Proiektua garatzeko eskualdeko Berritzegunearen prestakuntza-eskaintza eta erakundeen beste prestakuntza-eskaintza batzuk erabiltzea Puntu 1, gehienez ere</p>	<p>5 puntu, gehienez ere.</p>
<p>4. Emaitzak ebaluatzeko plana:</p> <p>4.1. Ebaluatzeko irizpideak definitzea, prestakuntza- eta berrikuntza-jardueren helburuak betetzen diren edo ez agertzen dituzten adierazleak 2 puntu, gehienez ere 2 puntu, gehienez ere</p> <p>4.2. Ebaluatzeko tresnak eta oneak finkatzen dira</p>	<p>4 puntu, gehienez ere.</p>
<p>5. Aurrekontua justifikatzea.</p> <p>5.1 Aurrekontua eskatutako lan-egitasmoarekin eta ikastetxeko baliabideekin koherente izatea Puntu 1, gehienez ere.</p> <p>5.2. Eskatutako dirua banakatzeko azalpenak Puntu 1, gehienez ere.</p>	<p>2 puntu, gehienez ere.</p>
<p style="text-align: right;">Puntuak, guztira:</p>	<p>25 puntu, gehienez ere</p>